*Erref: FMR / Legelari aholkularia*

**<u>GAIA</u>: GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA (2019-2022; VI. PLANGINTZALDIA) ONARTZEKO ERABAKI PROPOSAMENA**

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak -Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, ezartzen du, euskal herri- administrazioetan hizkuntzaren normalizazio-prozesua hezurmami dadin, entitate bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu beharko duela.

Aurreko plangintzaldi guztietan egin den ahalegin eskergaren ondorioz, batez ere langileena, aurrerapauso nabarmenak lortu dira GUFEn euskararen normalizazioan. Orokorrean euskal gizartean izan den bezala, aurrerapausoak nabarmenagoak izan dira euskararen ezagutzaren alorrean; langileen %76,29k hizkuntz eskakizunaren bat egiaztatuta dute.

Baina, gaitasunaren maila altua izanik ere, ezin gauza bera esan erabilera-mailari dagokionez. Bien arteko jauziak handia izaten jarraitzen du, batez ere lan-hizkuntza gisa erabiltzeari erreparatuz gero, eta horrek agerian uzten du, beste behin ere, ahaleginak erabilera areagotzearen inguruan batu behar direla.

Hori da, azken batean, plan honen zutoina eta izateko arrazoi nagusia, euskara ohiko lan-hizkuntza eta zerbitzu-hizkuntza gisa bultzatzea, Administrazioan bi hizkuntzen berdintasunera jotzea. Ahozko komunikazioek izan behar dute lehentasuna plangintzaldi honetan, horiek finkatu ahala, idatziz euskaraz gehiago lan egitea ekarriko dutelako. Demokratikoa eta eraginkorra izan behar du burutu behar den prozesu honek: herritarren,

*Ref.: FMR / Letrado Asesor*

**<u>ASUNTO</u>: PROPUESTA DE ACUERDO PARA LA APROBACIÓN DEL PLAN DE NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA, VI PERÍODO DE PLANIFICACIÓN (2019-2022)**

El artículo 4 del Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma Vasca, señala que dicho proceso se llevará a cabo a través de la aprobación y ejecución de los Planes de Normalización del Uso del Euskera de cada entidad.

Han sido notorios los avances producidos en la normalización del euskera en el IFAS, debido al gran esfuerzo llevado a cabo en los anteriores períodos de planificación. Como sucede en general en la sociedad vasca, los avances han sido más destacables en el ámbito del conocimiento del euskera; el 76,29% de los y las trabajadoras tiene acreditado algún perfil lingüístico.

Pero, aunque sea alto el nivel de capacitación, no se puede decir lo mismo del nivel de uso. Todavía es considerable el salto que hay entre ambos, sobre todo si se toma en cuenta el uso como lengua de trabajo; lo cual deja de manifiesto que hay que unificar esfuerzos en torno al incremento del uso.

Este es, a la postre, el pilar y la principal razón de ser de este Plan, aumentar el uso del euskera como lengua habitual de trabajo y de servicio avanzando hacia la igualdad de ambas lenguas en la Administración. Y de manera prioritaria aumentar el uso en las comunicaciones orales, porque el afianzamiento de éstas conllevará el aumento de las comunicaciones escritas. El proceso que se lleve a cabo tiene que ser democrático

erabiltzaileen eta familien hizkuntza aukera beti eta ororen gainetik errespetatu beharko du.

y eficaz, respetando siempre y por encima de todo las opciones lingüísticas de la ciudadanía, de las personas usuarias y de las familias.

Zehatzago eta sukaldeburuen lanpostuetarako, planak orain zehazten du 2 hizkuntza-eskakizuna esleitu behar zaizkiela, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren txostenean ezarritako arrazoietan oinarriturik. Izan ere, txostenak dioenaren arabera, sukaldeburu lanpostuak eskakizun hori behar du erabiltzaile eta familien hizkuntza-eskubideak bermatzeko, baina, horrez gainera, lanpostu horretan dihardutenek lan-komunikazio ugari izaten dituzte zentroko beste zerbitzuetako langileekin eta kanpoko enpresa hornitzaileekin.

Singularmente y para con los puestos de jefe/a de cocina, el Plan determina ahora la asignación del PL 2 con base y fundamento en la motivación contenida en el Informe de la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco, cuyo tenor sucinto expresa que esa jefatura de cocina requiere de tal perfil para garantizar los derechos lingüísticos de las personas usuarias y familias, amén de tratarse de puesto que mantiene comunicaciones laborales con los y las trabajadoras de los otros servicios del centro y con empresas proveedoras externas.

Horrekin batera, planaren onarpenak berekin dakar erakundeko lanpostuen zerrenda aldatzea adierazitako lanpostu horiei dagokienez (Leioa, Gallarta, Birjinetxe eta Elorrio laguntza-zentroetan); beraz, lanpostu horietan dihardunten pertsonei jakinarazpen pertsonala egin behar zaie, behar den bezala jakitun izan daitezen eta dagozkion ondorioetarako.

Consecuentemente la aprobación del Plan comporta la correlativa modificación de la Relación de Puestos de Trabajo del Instituto en estos términos respecto de los puestos de que se trata y que se corresponden con los Centros Asistenciales de Leioa, Gallarta, Birjinetxe y Elorrio; de suerte que las personas trabajadoras así afectadas como ocupantes de los mismos serán objeto de notificación personal para su ajustado conocimiento y efectos.

Erakundeko Negoziazio Mahaiak aztertu du planaren testua, aurtengo martxoaren 27an, eta erakundea ordezkatzen duten zentral sindikalek ere parte hartu dute zeregin horretan.

El texto ha sido objeto de consideración por parte de la Mesa de Negociación del Instituto, con la participación de las centrales sindicales allí representadas, en su reunión de 27 de marzo de los corrientes.

GUFEko Gobernu Batzordeari dagokio gai honetan ebazteko eskumena, maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.

La competencia para resolver este asunto corresponde a la Junta de Gobierno del IFAS, de conformidad con lo establecido en el artículo 5 de la Norma Foral 4/2001, de 30 de mayo.

Horren ondorioz, idazki hau izenpetzen duenak erabaki hau proposatzen dio Gobernu Batzordeari, onar dezan:

En consecuencia, quien suscribe somete a la Junta de Gobierno, para su adopción, la siguiente

## ERABAKI PROPOSAMENA

***Lehenengoa***.- GUFEn Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartzen da. Plan hori VI. plangintzaldiari dagokio (2019-2022); honekin batera doa planaren testua. Erabaki honen eranskin bakar gisa erantsi da, eta, xedapen-zatiari erantsita geratuko da, ondorio guztietarako.

***Bigarrena*.-** Ondorioz, aldatzea erakundearen lanpostuen zerrenda Leioa, Gallarta, Birjinetxe eta Elorrio laguntza-zentroetako sukaldeburu lanpostuei dagokienez.

***Hirugarrena***.- GUFEko gerenteari ahalmena ematen zaio plana egoki gauzatzen dela eta planaren barruko neurriak garatzen direla bermatzeko beharrezkoak diren ekintzak egin ditzan.

***Laugarrena*.-** Erabaki hau interesdunei jakinaraztea; interesdun guztiak sukaldeburu dira Leioa, Gallarta, Birjinetxe eta Elorrio laguntza-zentroetan.

***Bosgarrena***.- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari jakinaraztea erabaki hau, eta xedatzea erakundearen iragarkian intranetean eta web orrialdean nahiz Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dela.

Bilbon, 2019ko martxoaren 29an

## PROPUESTA DE ACUERDO

***Primero*.-** Disponer la aprobación del Plan de Normalización del Uso del Euskera en el IFAS, correspondiente al VI periodo de planificación 2019-2022, cuyo texto se incorpora como Anexo Único al presente Acuerdo y queda unido a su parte dispositiva a todos los efectos.

***Segundo*.-** Modificar en consecuencia la Relación de Puestos de Trabajo del Instituto para con los puestos de jefe/a de cocina correspondientes a los Centros Asistenciales de Leioa, Gallarta, Birjinetxe y Elorrio.

***Tercero*.-** Autorizar a la Sra. Gerente del IFAS para realizar las acciones que fueren precisas en orden a garantizar la debida ejecución y desarrollo de las determinaciones contenidas en este Plan.

***Cuarto*.-** Notificar el presente Acuerdo a las personas interesadas, ocupantes todas ellas del puesto de jefatura de cocina, correspondientes a los Centros Asistenciales de Leioa, Gallarta, Birjinetxe y Elorrio.

***Quinto*.-** Comunicar el presente Acuerdo a la Viceconsejería de Política Lingüística; así como disponer su ajustada publicación en el Tablón de Anuncios, Intranet, Página Web del Instituto y Boletín Oficial de Bizkaia.

En Bilbao, a 29 de marzo de 2019

Eneko Gutiérrez Coterón

*Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko burua*
*Jefe de Departamento de Dirección de Personas*

Teresa Alba Zubizarreta

*Gerente del IFAS*